

Haur Hezkuntza eta Lehen

Hezkuntza Graduak

PRACTICUM III

Gida Orokorra

2020-2021 ikasturtea

Koordinatzaileak:

Atzerriko Hizkuntza Minorra: Itziar Iriondo

Euskara, Hezkuntzarako Tresna Minorra: Ana Gandara

Haur Hezkuntzarako Tailerrak Minorra: Gorka Ormazuri

Hezkuntza Berezia Minorra: Marian Soroa

Lehen Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak Minorra: Lidia Caño

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	2
2.	IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA.....	2
3.	PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA	4
3.1.	PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK	4
3.2.	ARAU OROKORRAK.....	5
3.3.	PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA.....	5
3.4.	IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA.....	6
3.5.	BALIOZKOTZEAK.....	6
3.6.	KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK.....	7
3.7.	PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK	10
3.7.1.	Ikastetxeko koordinatzailea	10
3.7.2.	Ikastetxeko instruktorea	11
3.7.3.	Unibertsitateko Practicum IIIko koordinatzailea.....	12
3.7.4.	Unibertsitateko tutorea	13
3.7.5.	Ikasleak.....	15
4.	PRACTICUM IIIKO PROGRAMA	15
4.1.	HELBURUAK	15
4.2.	KONPETENTZIAK.....	16
4.3.	IKASKUNTZA EMAITZAK	16
4.4.	GAITEGIA.....	19
4.5.	EBALUAZIOA	20
5.	ERANSKINAK.....	22
5.1.	ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA (PRACTICUM III).....	23
5.2.	ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM III).....	25

1. SARRERA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFAko) ikasketen Graduetan eskaintzen diren bi titulazioetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) berritasun handiena laugarren ikasturtea gehitzea izan da; Minorrarena, hain zuzen ere.

Ikasturte berri honetan, garrantzi bereziki handia hartzen du Practicum IIIak: ikasleak hamabi aste egin beharko ditu eskola batean irakasle lana behatu, horretan jardun eta bere lanaren inguruan hausnarketa eginez.

Maisu-maistrei dagokien profilararen arabera, ikasleek beren jarduera garatzen den testuingurua aztertzeke eta planifikatzeko gai izango diren profesionalak izan beharko dute. Horretarako, irakaskuntzaren ulergarritasuna eskakizun indibidualekin batera uztartzeko gai izan behar dute eta, era berean, jakin Ikastetxeko Proiektuaren barruan, talde batean, lan egiten ere.

Practicum hau, beraz, heziketa ibilbidean guztiz txertatuta agertuko zaigu, ikaskuntzarako adierazgarri eta kontrasterako iturri gisa. Halaber, praktikak zentzua ematen die horren euskarri diren eta horien bilakaera orientatu dezaketen ezagutza teorikoei. Hori dela eta, PIII honetan garrantzi berezia izango dute ikaslea egiten ari den Minorraren alorrean jarduteak eta bertatik jasoko duen esperientziak.

Era berean, ikerketarako gaitasuna ere adierazi behar luke, ondoren burutu beharko dituen azterketa sakonagoak egiteko gai izan dadin.

Beraz, ikasleak Practicum IIIaren bidez eskuratu beharreko gaitasun nagusia da heziketa prozesua bizitzea eta prozesu horrekin zerikusia duen ororen inguruan gogoeta egitea.

2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egiten dira. Practicuma mailakatua izanik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgaia (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, horiek aurrera joan ahala, konpetentzia mailak gora egingo du.

Practicumak emango dio ikasleari bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

Taula 1. Kronograma (ikus egutegi zehatza HEFAko Practicum webgunean)

	EGONALDIA	EPEALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste (30 ordu astean)	urria-azaroa	HH: 8 kr. LH: 9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (30 ordu astean)	otsaila-apirila	HH: 12 kr. LH: 11 kr.
PRACTICUM III	12 aste (30 ordu astean)	azaroa-otsaila	HH: 18 kr. LH: 18 kr.

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa parte-hartzaile orokorra egitea da, ordura arte ikasitakoa erabiliz, eta irakaspen horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu, batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa egitea da helburua.

Practicum IIIa Minorrarekin eta berrikuntza proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2019ko irailean, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretuak, martxoaren 6koak, arautzen dute Practicuma.

3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Practicum Dekanordetzak berariazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarriak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gaintzeko beharrezko informazio guztia.

Behin praktikak amaituta, Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako inktoreei, ofizioz, 33/2018 Dekretuan ageri gisa.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko; hala, praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaia denez, Fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum Dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicum AzpiBatzordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Practicum Dekanordetzara eta AzpiBatzordera jo beharko du.

Unibertsitateak ezarritako ereduaren bidez tutorearen aldeko ebaluazioa lortu ondoren, ikasleak egindako kanpoko praktika akademikoen ziurtagiri bat eskatu ahal izango

dio PPAri edo, hala badagokio, tituluko praktiken arduradunari. Praktiken aitortzarako, ikastegiak finkatuko du zer prozedurari jarraitu behar zaion eta, hala behar bada, zer dokumentazio eska daitekeen.

3.2. ARAU OROKORRAK

- Ikasleak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun bitartean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe-, denboraldi- edo ordutegi-aldaketak) Magisteritza Arloko Practicum AzpiBatzordeari dagokio. Beraz, ikasleek aipatu AzpiBatzordeari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, HEFAn Kasu Bereziatarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera (<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak>).

3.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako AzpiBatzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

- Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.
- PI, PII eta PIIIaren hautaketa irizpide bakarra akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea.
- Haur Hezkuntza Graduan, ikasle guztiek gauzatuko dute PIIIa 2. zikloan.

Behin ikastetxea esleituta, ikasleak praktiken onarpen-agiria eta horiek modu egokian garatzeko eta, kasuan kasu, bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa sinatuko ditu.

OHARRA: 33/2018 Dekretuak berekin ekar ditzakeen aldaketek prozedura honi eta 3.4. puntuan agertzen direnei eragin diezaiekete.

3.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA

Lehen aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta EJK berak nahikoa plaza emango dizkio Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.

Ikasleek Gipuzkoan onarturiko praktiketako prestakuntza zentroyen eskaintzan hautaketa egingo dute, bere titulazioaren arabera, EJK Fakultateari esleitu dion plaza eskaintza zerrendatik abiatuta.

Practicum Dekanordetzak eskaintza argitaratuko du eta ikasleek plaza eskaera egiteko egutegia finkatu, eta HEFAren webguneko Practicum atalean argitaratuko du.

3.5. BALIOZKOTZEAK

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

Taula 2. Baliozkotzeak

Irakasgaia	Irakasgai osoa	Egonaldia bakarrik
Practicum I	HHko eta LHko diplomatua edo graduatua bada. Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian, Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza aritu bada.	Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.
	Plan zaharretako Practicumak eginak	

	izatea.	
Practicum II	HHko eta LHko ikasketetan diplomatua edo graduatua bada	Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten badu.
	Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.	
Practicum III		Praktika denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, Minorraren alorrean. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu.

3.6. KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK

Arau orokor gisa, Practicuma enborreko irakasgaia da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopurua ditu zehaztuak.

Ikasle batek ezin badu Practicuma ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera “Kasu Berezi” bat izan daiteke:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak.¹
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.²
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.³
4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak.⁴
5. Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.
6. Garapenerako Lankidetzeta programetan parte hartzen duten ikasleak.
7. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. Arazo administratiboak

¹ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10. artikulua arabera: https://www.ehu.eus/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf.

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8. artikulua arabera.

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9. artikulua arabera.

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6. artikulua arabera.

c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera horietako batean egongo den ikasleak eskaera formala egin beharko du bere egoera “Kasu Berezi” bezala kontuan har dadin. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

Egoera horien aurrean ikasleak egin ditzakeen **eskaera motak**:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

Prozedura honako hau izango da:

1. Ikasleak kontenplazten diren Kasu Berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum AzpiBatzordeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta, zentroak egoera edo Kasu Bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta kanpoko tutoreari komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak onartzen ez baditu, beste zentro bat bilatu beharko da.
8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten Kasu Bereziak eskaera guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

OHARRAK:

- Gradua amaitzeko 3 irakasgai edo gutxiago falta zaizkien eta Practicum IIIa lehenengo lauhilekoan egin nahi duten ikasleek ezohiko epea izango dute, eta epe hori irailaren amaieran zabaldu eta abendu amaieran amaituko da (12 aste). Epe horiek ezingo dira ez aurreratu, ez atzeratu. Bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Practicumean data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.
- Egonaldiaren egutegia edo ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke, baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintze aldera.

Egonaldia honako modu honetan luza daiteke, adibidez:

IRAKASGAIA	EGONALDIA	ASTE KOPURUA
Practicum I	goizez bakarrik	10 aste
Practicum II	goizez bakarrik	14 aste
Practicum III	goizez bakarrik	24 aste

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.
- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik.
- Ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da eskolan.

- **Salbuespenak:**

- Dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.
- Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek memoria egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

3.7. PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea

Practicumaren koordinatzaileak izango du praktiketan dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura bere ikastetxean eta, halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egokiak diren harremanak egitea.

Aitortutako zentroko zuzendariak, bertako ordezkari gorenaren den aldetik, ikastetxe horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

Eginkizunak:

- Practicuma egiten ari diren ikasleei hezkuntza zentroan egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Hezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan, eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duen eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.

- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Zentro hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek zentroaren bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

3.7.2. Ikastetxeko instruktorea

Practicumaren tutoretza lanak haxe eskatzen du:

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriei buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Instruktoarak, EHUko tutorearekin batera, informazio eta orientazio egokia eskaini beharko die ikasleei, prozesuan zehar, gaitasunen eskuratzeko mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestakuntza izaera eduki dezan.
- Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.

- Praktiketara dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea eta hau txosten batean biltzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz. Txosten hori EHUko tutoreari helaraziko dio eta ikasleari ere helaraziko zaio, tutorearen bidez.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen kompetentziak ebaluatzeko azken balioespena egitea eta, baliospena negatiboa denean, horren argudioak zehaztea instruktorearen ebaluazio orrian.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak, gertatu ahala, unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Prozesuan zehar practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.7.3. Unibertsitateko Practicum IIIko koordinatzailea

Practicumaren koordinazio lanak hauxe eskatzen du:

- Practicumeko AzpiBatzorde kidea da.
- Koordinazio eta kudeaketa akademikoaren arduraduna da, tutorearekin batera.
- Gidako zereginen planifikazioaz arduratzen da, baita praktikaldiko koordinazioaz eta Practicum IIIko ebaluazio eta hobekuntza proposamen orokorrak egiteaz ere.
- Ikasleen esleipenaz arduratzen da.
- Gidak eguneratzen ditu.
- Batzordearen laguntzaz, koordinatzaileak tutoreak eta instruktoreak egin beharreko laguntza eta jarraipen prozesua zehaztuko du; bertan, agenteen arteko (ikaslea, tutorea, instruktorea) komunikazio uneak espezifikatuko dira, baita ikasgaiari

dagozkion zeregin nagusiak entregatzeko data garrantzitsuak ere, laguntza eta jarraipen prozesua egoki gara dadin.

- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatzen ditu eta informazio eta formazio beharrak identifikatu eta AzpiBatzordera eramaten ditu.

3.7.4. Unibertsitateko tutorea

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasketen enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Dekanordetzak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura.
- Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezten, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzat estu batetik abiatuta.
- Praktiketari ari diren ikasleekin bilerak antolatzea: lehenengoa, praktikak hasi baino lehenago; azkena, praktikak amaituta edo amaitzean direnean; eta tartean, beharrezkoak ikusten diren bakarkako edo taldeko bilerak.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Bere ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, zentroetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Harremanetan jartzea instruktorearekin eta ikaslearekin, prestakuntza proiektuaren garapenaren eboluzioa ezagutzeko eta, hala behar bada, hobekuntza neurriak ezartzeko.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktikaldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako konpetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza proiektua egitea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz oharraraztea ikaslea.

- Practicumaren heziketa prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Tutoreak, instruktorearen laguntzaz, informazio eta orientazio egokia eskaini beharko die ikasleei gaitasunen eskuratzeko mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestakuntza izaera eduki dezan.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicuma kalifikatzea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleen praktiketako tutorearekin harremanetan egotea. Hiru aldiz jarriko da harremanetan erakundeko instruktorearekin, gutxienez: lehendabizikoa, praktiken hasieran; bigarrena, praktiken zikloaren erdialdean; eta, azkenekoa, praktikak amaitu baino lehen.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz oharraraztea ikaslea.
- **Bisitak ikastetxetara:** Practicum IIIak irakaskuntza-aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzaren harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Batetik, ikastetxeko maisu-maistren lana lehen eskutik ezagutzeko eta baloratzeko aukera ematen du, eta bestetik, zubiak eraikitzen dira unibertsitatearen eta ikastetxearen artean. Horrenbestez, praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio-bisita bat edo gehiago egingo ditu. Honako hauek izango dira bisita horren funtzioak eta edukiak:
 - 1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.
 - 2.- Ikastetxeko tutorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak adostea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.
 - 3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

3.7.5. Ikasleak

Practicumak hauxe eskatzen du:

- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horren araudia errespetatzea.
- Zentroko eta unibertsitateko tutoreekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoetara jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.
- Praktikak egingo diren enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatuarekin edo unibertsitatearekin kontratu bidezko harremanik ez edukitzea, non eta praktikez arduratzen den Dekanordeak edo Zuzendariordeak berariaz baimentzen ez duen.

4. PRACTICUM IIIKO PROGRAMA

4.1. HELBURUAK

Haur nahiz Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte gelako lanean eragiten duten curriculum diseinuetan jasotako esparru guztiak, betiere edukien naturaren eta konplexutasun mailaren arteko elkarrekotasun egokia finkatuz; horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuz.

Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.

3. Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio-funtzioak betetzea.

4.2. KONPETENTZIAK

Hezkuntza Graduak maisu-maistra gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko konpetentziak:

Taula 3. Practicum IIIko konpetentziak eta deskriptoreak

PRACTICUM IIIko KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
Ingurune sozialeko eta hezkuntza komunitateko lankidetzaren modu ezberdinak ezagutzea.	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN
Haur (0-3 eta 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) taldeetako elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea.	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK
Ikastetxe batean sor daitezkeen jardueraren eremu ezberdinetako hobekuntza proposamenetan parte hartzea.	HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA
Praktika jardunetik hausnartzea, irakaskuntza-jarduneko ahulguneak eta indarguneak ohartzeko eta baita ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren mugez ere.	PRAKTIKAREN HAUSNARKETA

4.3. IKASKUNTZA EMAITZAK

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jardueraren multzo

bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako kompetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Kompetentzietatik zuzenean eratorritzen diren “ikaskuntza-emaiza” deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza emaitzek zehaztasun maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluaziorako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori guztia ondoko taulan jasotzen da:

Taula 4. Kompetentziak, I.E., E.A.k eta ebidentziak

KONPETENTZIAK (deskriptoreak)	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Minorraren alorretik, ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen inguru soziokulturalean parte hartzea	Hezkuntza komunitatearen eta inguruko gizarte eragileen arteko harremana bultzatzeko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO ⁵ Bisita
		Hezkuntza komunitateko parte diren guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu	ITEO Bisita
		Parte hartzen du irakaskuntza kalitatearen hobekuntzen sorkuntzan eta garapenean, ikerketa pedagogikoan eta irakats-jarduera hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean.	ITEO MEP
		Hezkuntza komunitatean lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta kompetentziak adierazten ditu.	Bisita ITEO
		Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarriketaren, argudioaren, negoziazioaren eta adostasunaren bidez .	ITEO Bisita
		Praktikak burutzen ari den mailako eta zikloko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO Bisita

⁵ ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria..

ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Minorraren alorretik, ikasgelako taldearen antolaketa eta dinamika aztertu eta parte hartzea	Norbanakoaren garapen integrala lortzeko maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu.	Egunerokoa MEP ⁶ Mintegia Foroa		
		Ikaste antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituen estrategiak erabiltzen ditu.	ITEO MEP		
		Balioetan oinarritutako hezkuntza eta garapen sozio-kognitiboa ahalbidetzen ditu.	ITEO MEP		
		Ikasleak, egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu, ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko.	ITEO MEP		
		Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak ezartzen eta erregulatzen ditu.	ITEO Bideoa		
		Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta ikasleen arteko errespetuzko jarrera sustatzeko	ITEO Bisita		
		HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA	Programazio unitateak edo bestelako hezkuntza esku-hartzeak planifikatu, burutu eta ebaluatzea minorraren alorretik.	Pedagogia lerroa, antolaketa eta gela barruko dinamika aztertzen eta interpretatzen ditu, minorrean eragiten duten alorrei erreparatuz.	MEP Mintegia Foroa
				Praktika garaian garatzen diren programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz.	MEP Mintegiak Foroak
				Klaseak prestatzen eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiarekin eta baliabide egokiarekin bat eginez.	MEP Bideoa
				Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak eta baliabide didaktikoak.	ITEO MEP
Tutorizazio bileretan, maisu-maistren laguntzaile gisa, eta ikastetxeko bestelako bileretan (maila, zikloa, klaustroa) parte hartzen du .	ITEO MEP				
Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen diseinuan,	MEP Mintegia Foroa				

⁶ MEP: Memoria/Ebidentzia karpeta/Portfolio.

	grapenean eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea	antzematen ditu berauetan.	
		Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du .	MEP
	Irakaskuntza praktikaz hausnartzea minorraren ikuspegitik	Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du, lanbidearenak diren azterketa irizpideak erabiliz.	MEP Mintegia Foroa
		Ikastetxeko tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du.	Bisita Mintegiak Foroak
PRAKTIKAREN HAUSNARKETA	Minorreko ezagutza teorikoak praktika profesionalarekin erlazionatzea	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu.	MEP Mintegiak Foroak
		Ikastetxean antzemandako konpetentzia profesionalen eta horren inguruan norberak dituenen arteko antzekotasun eta desberdintasunak behatzen eta egiaztatzen ditu.	MEP Mintegiak Foroak

4.4. GAITEGIA

1. gaia: **Hezkuntza praktika eta ikaste-irakaste prozesuaren balorazio kritikoa**

- Ikasgela: maisu-maistra tutorea, gelaren antolaketa eta dinamika, komunikazio prozesuen erregulatzea.
- Kasuen diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak.
- Hezkuntza lankidetzak: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak.
- Kudeaketa lanak.

2. gaia: **Proiektu didaktikoen eta hezkuntza programen (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak...) diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa, Minorraren alorretik**

- Prozesuaren definizioa: proiektuaren edo programaren garaiak.

- Arazoaren azterketa eta definizioa.
- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia.
- Garapena eta diseinua.
- Burutze edo ezarpena.
- Emaitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak.

4.5. EBALUAZIOA

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: batetik, unibertsitateko tutoreak eta, bestetik, Practicuma egin den ikastetxeko inktoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan: unibertsitateko tutorearen ebaluazioak, azken notaren % 70a balioko du. Gainerako % 30a ikastetxeko inktoreak baloratuko du.

Aldeko ebaluazioa duten praktikak ikaslearen TGEEn jasota geratuko dira. Praktiken kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko zuzendaritzan edo dekanotzan, 10 eguneko epean.

Irakasgaiaren beraren konpetentziak lortzea da Practicumaren helburua, eta horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat, gainditzeko ez badu, azken nota gutxiegi izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ezohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ezohiko deialdian ere gainditzeko ez badu, Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.
- Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan % 80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuak eta, beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

5. ERANSKINAK

5.1. ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA (PRACTICUM III)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA:

IKASLEA:

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio Irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko instruktorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Hezkuntza komunitateko guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu.
	Irakaskuntza kalitatea hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean parte hartzen du.
	Lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu.
	Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarriketen eta adostasunaren bidez.
	Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du.
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituzten estrategiak erabiltzen ditu.
	Egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu jarduerak ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko.
	Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak menperatzen ditu.

	Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta giro egokia sustatzeko.
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
HEZKUNTZA ESKU- HARTZEAK	Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak.
	Tutorizazio bileretan eta ikastetxeko bestelakoetan parte hartzen du maisu-maistren laguntzaile gisa.
	Klaseak prestatu eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez.
	Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du.
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n, 202.....(e)koren (e)(a)n

5.2. ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM III)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA: Ikasturtea:.....

IKASLEA: Gradua:.....

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko kompetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu.
	Gelako dinamikan komunikazio prozesuak eta ikasleekiko harremana ahalbidetzeko teknika egokiak ezagutzen ditu.
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):
HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA	Programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz.
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetako bere parte-hartzearen azterketa egokia egiten du.
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):
PRAKTIKAREN HAUSNARKETA	Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du.
	Tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte-hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du.
	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu.
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):

IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)

KONPETENTZIAK	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN (1-10):	
	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK (1-10):	
	HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA (1-10):	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	

OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n, 202.....(e)koren (e)(a)n